

legora eramana edo korreoz bidaliaz. Horretara Bilbo edo Donostiarra zertan joanik ez duzu.

Esamina hauetara lehen «curriculum vitae» bidali zutenak, ikastaroa Donostian edo Bilbon egin dutenak, nahiz bere aldetik nahi duena joan daitezke.

BATZAR-AGIRIAK (1970)

1970-I-30

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1970-eko urtarrilaren 30-ean, goizeko 10 terdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, Arrue, Diharce, A. Intza-koa, Irigaray, Irigoyen, Labayen, eta Villasante euskaltzainak; Altuna, F. Arregi, Bastarrika, Beobide, Berrojalbiz, Berrondo, J. Estornés, Etxaniz, Garmendia (Salbador), Lekuona (Juan María), Lizundia, Oñatibia, Ruiz Urrestarazu, Saizarbitoria, Sarasola, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martín idazkari dala.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Agiria ontzat hartzeko orduan, Irigoyen-ek dio, legeari buruz berak esanak ez daudela zeharo berdin jarriak eta zuzenketa nahi duela zehatz gelditu dedin. Eta ondorean egileak beren lanegatik dituzten eskubidezko xehetasunak honela ematen ditu:

15592-Ley 10 de enero 1879 (M.^o Fomento, G. 12). *Sobre propiedad intelectual o literaria*. Eta, 15.594.—*Real Decreto 3 septiembre 1880* (M.^o Fomento, G. 6). *Reglamento para la ejecución de la Ley de Propiedad Intelectual*: Art. 36. El plazo para verificar la inscripción será el de un año, a contar desde el día de la publicación de la obra; pero los beneficios de esta Ley los disfrutará el propietario desde el día en que comenzó la publicación, y sólo los perderá si no cumple aquellos requisitos dentro del año que se concede para la inscripción. Art. 38. Toda obra no inscrita en el Registro de la Propiedad Intelectual podrá ser publicada de nuevo reimpresa por el Estado, por las Corporaciones científicas o por los particulares durante diez años, a contar desde el día en que terminó el derecho de inscribirla. Art. 39. Si pasase un año más después de los diez sin que el autor ni su derecho-habiente inscriban la obra en el Registro, entrará esta definitiva y absolutamente en el dominio público. Art. 40. Las obras no publicadas de nuevo por su propietario durante veinte años pasarán al dominio público, y el Estado, las Corporaciones científicas o los particulares podrán reproducirlas sin alterarlas; pero no podrá nadie oponerse a que otro también las reproduzca. Art. 41. No entrará una obra en el dominio público, aún cuando pasen veinte años: 2.^o Cuando después de impresa y puesta en venta

La obra con arreglo a la Ley pasan veinte años sin que vuelva a imprimirse porque su dueño acreditó suficientemente que en dicho período ha tenido ejemplares de ella a la venta pública. Art. 42. Para que pase al dominio público una obra en el caso que expresa el artículo 40, es necesario que preceda denuncia en el Registro de la Propiedad, y que en su virtud se excite por el Gobierno al propietario para que la imprima de nuevo, fijándole al efecto el término de un año.”

Hala ere idazkariak dio, Euskaltzaindiaren ikus-moldeak ez direla aldatzen, zeren Sociedad General de Autores-ko Asesoria Juridica-kegin zigun ofizio hartan argi eta garbi agertzen duela: “Como existe una amnistia hasta el 31 de diciembre próximo para registrar todas las obras que no lo hubieran sido a su debido tiempo, pueden Vds. inscribir en el Registro de la Propiedad todas las obras del Sr. Azkue. Para ello será necesario que si las obras están editadas antes del año 1958, presenten tres ejemplares, y si están registradas con posterioridad, un ejemplar.” Eta eskari hau bete da urtearen azkena baino lehen. Bestalde, Villa jaunarekin ere, bere abogadua aurrean, elkarrekiko lotura emana dugula.

Labayen jaunak euskaltzain-buruarentzat doluminak eskatu ditu, bere anaia hil berri dalako.

Ondorean, Erkiaga diru-zainak 1969 urte-azkeneko egoreraren berri ematen du, idazkiz. Bilboko diru-etxeetan abuztuan egoana: 20. 824, 31; gehitua, 197. 955,42; urritua, 206. 956,92; dagoana 11. 822,81. Eta Donostiako diru-etxeetan uztailean egoana: 122. 006,24; geitua, 7. 668,92; urritua, 80. 941,30, dagoana 48.733,86. guztiz, duguna: 60.556,67 peseta. Eta ondorean, gora-behera guzieren xehetasunak ematen ditu.

Eta diru-zainak, txartel batean gogorazten du karguak aldatzeko epea igaroa dala eta berea laga gura duela.

Bilboko Euskerazaleak beren Batzar Nagusirako txartel bat bialtzen digute, otsailaren lehenengoan izango da, eguerdiko 12-etan. Alfonso Irigoyen izendatzen da Euskaltzaindiaren ordezkari, batzar horretarako.

Idazkariak aditzera eman du Madrilgo *Fuerza Nueva* aldizkarian 159 zeb., 9 or. (1970-1-24-koz) *Elsa Scheelen*, 1968-ko “Txomin Aguirre” nobela saria irabazi zuenari, Euskaltzaindiari eta euskaltzainburuari buruz dakarrenaren berri eman du.

Symposium-ari buruz, idazkaria Santamaria jaunarekin mintzatze-kotan gelditu da.

Euskaltzaindiko lege-gizonen esku uzten da Euskaltzaindiaren personalidad juridika hobeto lotzea. Beren artean mintzatzeko ardurak Lojendio jaunaren esku uzten dira.

Arrue mintzatu da aski luze Euskaltzaindiaren personalidadeari buruz.

Gaur-ekoekin arratsaldean batzarra egingo dutela, har-emanerako izendatu zan batzordekoak, euskeraren estadistika estudioari buruz aditzera eman da.

Beobidek berriz eman ditu, zehatz-mehatz aditz batuaren sariketaren erregelak. Eta Labayen-ek eskatzen du, mahai-burua Oñatibia eta Altunarekin gehitzea.

Idazkariak adierazi du, Instituto Nacional del Libro-ko G. Díaz Plaja-k Villasante-ri eskatu diola Euskaltzaindiak ia bere gain hartuko lukean salgai dauden liburu guztien katalogo bat egitea, Institutoak bere

kontura argitaratu ahal izateko. Idazkaria gelditu da, lan hori Euskaltzaindiak osatzeko, beharko diran enkuesta eta fitxen modeloak berak gertatzeko, bibliografiak eskatzen dituen normetan.

Euskaltzain-buruak txosten bat irakurri du, bere hiru urteko burutzaren kontuemanez. Batasunari buruz gertatu diranei adierazpenak Euskaltzaindiak ez dituela gauzak *por decreto* bezala eman behar, *normativo* baizik. Eta Euskaltzaindiak *neutral* izan behar duela holako gauzetan. Mitxelena jaunaren iritziaz gainera, beste iritzi gehiago ere entzun beharra zegoela. Batasunak oinarri zabala eta denbora eskatzen dituela eta abar.

Ondoren zenbait eztabaida sortu da, Arantzazun bide bat behartu ez bazan ere, bide bat markatu zala eta hortara ahalegindu beharra dagoa. Beste batzuen iritzian, bakoitzak nahi duena egiteko eskubidea izan behar du. Batez ere H letrati buruzko eztabaidak izan dira gainerako normak ahotan hartu gabe. Diharce mintzo da; mugazandikoen izenean, esanez, sentitzen duela berek beharrezkoa duten letra horregatik besteak hain asarre ibiltzea. Berek letra hori ahal izan duten guzian kendu dutela, baina bokalarteetan, demostratiboetan eta zenbait nitzetan hain beharrezkoa dutenez hor utzi ezina dala. Eztabaida beroak iraun du ezertariko erabagirik hartu gabe.

Aita Intza-koak irakurri du txosten bat, H letra euskera idatzian noiztikoa eta zelan sartua don, XVI eta XVII-gn. mendeetan. Baina bere agerpenak ikusi da ez direla berak agertzen dituen bezala, nornahik Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca*, *Textos arcaicos vascos* estudioetan edo XVI-gn. mendeko literaturan argi ikus ditzakean bezala. Hon-taz ere, eztabaidak lehenera jo dute.

Bukatzeko, kontu eman da liburutegirako hartu diren titulu berriena: X. Gereñok bere *Arantzaz artean*, Anastasio Arrinda (Anes Laskau-kok), *Juantxo-triki* eta *Oto ta Pototo*, A. Zubikarayk *Motrico* (Apuntes, extractos y divagaciones), eta J. San Martin-ek *Uhin berri* liburuak. Guztientzat bijoaz eskerrak.

Ohi dan oitotzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1970-II-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1970-eko otsailaren 28-an, goizeko 10 terdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, Diharce "Iratzeder", Erkiaga, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Larzabal, Villasante, eta Zabala euskaltzainak;

Altuna, Aresti, Beobide, Berriatua, Berrojalbiz, Berrondo, Estornés (José), Etxaniz, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Gereño, Goikoetxea (Gaztelu), Kintana, Lizundia, Oleaga, Oñatibia, Saizarbitorja, Sarasola, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Ohi dan oitotzarekin hasi da biltzarra.

Agiria ontzat hartzeko orduan, Zatarain-ek dio, H-ak Arantzazun errekomentatutakoak baino gehiago sartzen direla agirian, zeren han